

Goi Mailako  
Lanbide  
Heziketa

Osasuna

# Aho-hortzetako higieneko goi mailako teknikaria



Nafarroako  
Gobernua  Gobierno  
de Navarra



UNIÓN EUROPEA  
EUROPAR BATASUNA

Fondo Social Europeo  
Europako Gizarte Funtsa

El FSE invierte en tu futuro  
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du

# Aho-hortzetako higieneko goi mailako teknikaria Zure etorkizuneko bizibidea

Heziketa ziklo hau amaitzen duzunean, honako lanbide-jarduera hauetan aritzeko kualifikatuta egonen zara:

## Aho-hortzetako higiena

- Aho-hortzetako kabinete baten lan-arloa kudeatzea.
- Aparatu estomatognatikoaren ezaugarri anatomikoak, fisiologikoak eta patologikoak identifikatzea, hura baloratu eta erregistratzeko.
- Osasun zerbitzuetako paziente/erabiltzaileen aho-hortzen osasun-egoera aztertzea, helburu epidemiologikoekin, eta zuzeneko jarduketan bidez esku hartzea.
- Pertsonen eta komunitateko kideen aho-hortzetako osasuna ebaluatzea, zaintza epidemiologikoko jarduerekin.
- Pertsonen eta komunitateko kideen aho-hortzetako osasuna sustatzea, osasun-hezkuntzako eta osasun-sustapeneko jardueren bidez.
- Aho-hortzetako osasuneko taldearen barnean, teknika odontologikoak egitea, norberak, beste norbait ordezkatuz edo lagunduz.

## KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Zure lanbidean osasun sektore publiko eta pribatuan arituko zara, osasun-arretaren eta osasun-sustapenaren arloan eta aho-hortzetako osasuneko talde egituratuetan, oinarrizko osasun laguntzako taldeetan, osasuna sustatzeko unitateetan eta aho-hortzetako kontsulta edo kabinete pribatuetan. Osasuneko prebentzio- eta arreta-talde bateko kide izan daiteke, fakultatibo batek koordinaturik. Laneko hortz-unitate

edo -kabinete bat antolatu eta kudeatuko du, komunitateko kideei laguntza- eta prebentzio-zerbitzuak emanen dizkie eta haien kalitatea kontrolatuko du, zaintza epidemiologiko eta osasun-hezkuntzako jardueren bidez.

Hauak dira arloko zeregin eta lanpostu garrantzitsuenak:

- Aho-hortzetako higieneko goi mailako teknikaria.
- Hortzetako higieneko teknikari espezialista.
- Aho-hortzetako higienista.
- Aho-hortzetako osasuneko hezitzailea.

## ZIKLOAREN MODULUAK

- Harrera eta logistika hortz-klinikan.
- Aho-barrunbearen azterketa.
- Aho-barrunbearen esplorazioa.
- Aho-hortzetako esku-hartzea.
- Fisiopatologia orokorra.
- Lanerako prestakuntza eta orientabidea.
- Ingelesa.
- Lehen sorospenak.
- Epidemiologia aho-osasunean.
- Aho-osasunerako hezkuntza.
- Kontserbatzailea, periodontzia, kirurgia eta inplanteak.
- Protesia eta ortodontzia.
- Aho-hortzetako higienearen proiektua.
- Enpresa eta ekimena.
- Lantokiko prestakuntza.

### + INFO

T 848 42 66 16 | 848 42 64 00

[www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/formacion-profesional](http://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/formacion-profesional)